

MB

1976

GASTELZ

DENA
ALDATU
NAHI GENUEN
DENA
ALDATU
NAHI DUGU

9505

COMUNICADO

EHAS-ETA-LAIA-LAB LAK

LA CLASE OBRERA Y EL PUEBLO VASCO, DE LUTO Y EN LUCHA

Una vez más, Euskadi está de luto: tres compañeros han caído, asesinados por las balas de las fuerzas represivas.

Las calles de Vitoria se han teñido de sangre obrera, de unos hombres que luchan por mejorar sus salarios y en solidaridad con sus compañeros despedidos, contra la patronal, única responsable y causante de las condiciones de vida cada día más miserables que sufrimos los trabajadores.

Es el triste colofón de una política de terror contra la clase obrera y el Pueblo Vasco, que nos demuestra que las cosas no han cambiado nada, que la opresión nacional y de clase que sufre Euskadi sigue igual, que el "aperturismo" de Fraga sólo existe en los fusiles para disparar, contra el Pueblo, y que la Monarquía de Juan Carlos, es el franquismo sin Franco.

Mientras Fraga habla y promete reformas, los trabajadores vemos que nuestra situación se agrava cada vez más, que nuestras reivindicaciones se las lleva el viento, y somos brutalmente apaleados y hasta tiroteados en cuanto nuestra lucha y nuestra protesta desbordan el plan trazado por él. El camino está trazado por los tres compañeros asesinados y por el pueblo de Vitoria. La lucha y la sola lucha es el camino único para conseguir nuestra liberación nacional y de clase.

A partir del día 8, extendamos la lucha a todos los rincones de Euskadi.

HUELGA GENERAL EN EUSKADI!
PAROS, MANIFESTACIONES, PIQUETES EN TODOS LOS RINCONES!!
NI UN COMERCIO ABIERTE!

TODOS A LA CALLE!!
CUERPOS REPRESIVOS ASESINOS, DISOLUCION!!
CASTIGO PARA SUS CRIMENES!!
FRAGA ASESINO!!!

NO A LA CONGELACION SALARIAL!!
NO A LOS DESPIDOS!!

GORA EUSKADIKO LANGUILERIA!!!
GORA EUSKADI ASKATUTA!!!

E.H.A.S. E.T.A. L.A.I.A. L.A.B. L.A.K.

06 *Dena aldatu nahi zuten.
Dena aldatzera goaz*

► Garbiñe Aranburu

08 ELKARRIZKETA ■ ELENA BELOKI: «*Gurea ez zen soilik borroka antifrankista bat, gurea Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko borroka da*»

14 KRONOGRAMA ■ DIKTADURA HILZORIAN

16 *3 de Marzo, ejemplo para la lucha de liberación*

► Rafa Diez

22 KRONOGRAMA ■ KRISI POLITIKO, SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN MUGARRIAK



- 24** ELKARRIZKETA ■ TESTIGOS DEL 3 MARZO:
Testimonios de aquellos días. Sucesos que marcan toda una vida
- 32** KRONOGRAMA ■ MEMORIAN ILTZATUTAKO LANGILE BORROKA
- 34** NAZIOARTEA ■ **Sarraskiaren oihartzuna munduko bazter guztietara iritsi zen**
- 35** ELKARRIZKETA ■ LUCIANO VASAPOLLO: «*El mundo sindical e intelectual italiano respondió con fuerza porque se vio como un ataque directo al movimiento obrero europeo*»
- 38** KRONOGRAMA ■ ETENGABE BIRAKA ZEBILEN MUNDU BAT
- 40** *Atzoko, gaurko eta biharko Memoria*
► Julen Díaz de Argote García
- 44** **Memoriaren beharra eta Zabaltzen Dokumentazio Zentroa**
- 46** GALERIA ■ MEMORIA ETA BORROKA HORMETATIK
- 48** ELKARRIZKETA ■ JON MARTINEZ: «*Martxoaren 3an lantegietako arazoetatik abiatuz sistema osoa jarri zen zalantzan*»
- 50** ELKARRIZKETA ■ LANDER GARCIA: «*Ez dut ezagutzen gertaera errepresibo bakar batean oinarrituta hainbeste abesti dituen beste kasurik*»
- 52** BIBLIOGRAFIA

Dena aldatu nahi zuten.

Dena aldatzera goaz



GARBIÑE ARANBURU IRAZUSTA

LABen Koordinatzaile Orokorra

Euskal langileen memorian iltzatua geratu zen 1976ko martxoaren 3a. Poliziak sarraskia eragin zuen Gasteizko San Frantzisko elizan, barruan batzarra egiten ari ziren langileen aurka eraso egin eta bost langile hil zituzten; ehunka izan ziren, berriz, zaurituak.

Euskal langile mugimendua indartsu zegoen, greban zeuden hainbat lantegitan. Milaka langile ziren mobilizazioetan, bi aldarrikapen nagusirekin: lan eskubideak eta soldatak hobetzea. Goraipatzekoa da emakumeek egindako sostengu lana, soldata-arrakalak salatu, grebaren arrazoiak sozializatu eta grebaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko.

Garai hartan, eskubide laboralekin batera, aldarrikapen politikoek ere indar handia zuten. Francoren diktaduraren ondotik, haustura ala erreformaren alde egitea zen kontua eta errepresaliatuentzat amnistia edo Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aitortzea aldarrikapen politiko nagusiak.

1976ko Martxoa, Francoren diktaduraren hondarretan, indartzen

ari zen langile borroka zapuzteko saiakera izan zen. Mugarri garrantzitsua izan zen, eta LABek, beste eragile sozial eta kulturekin batera, memoria hori bizirik mantentzeko lan egin du urte hauetan guztietan.

Hilabete batzuk lehenago, Francok azken heriotza zigorrak sinatu zituen. Herri honen askapen prozesua eragozteko asmo argia zuten frankistek, eta 1975eko irailaren 27an Txiki eta Otaegi fusilatu zituzten. Hego Euskal Herrian ugarriak izan ziren protestak eta hiru eguneko Greba Orokor arrakatsua izan zen.

Fase berri bat irekitzen ari zen, dena aldatu nahi zuten. Sindikatuko kideak buru-belarri inplikatuak ziren borroka laboral eta politikoetan. LAB jaioberria zen. Langile mugimendua borbor zegoen garaian, Euskal Herriaren askapen nazionala eta soziala uztartzeko jaio ginen. Klase sindikatua, independentista, euskalduna eta soziopolitikoa. 70eko hamarkadaren bueltan Lurdes Iriondo abesla-

riak *Gu ez gaude konforme* abesten zuen. Horrexek deskribatzen du LABen izaera, dagoenarekin ez gara konformatzen, euskal sindikalismo eraldatzailea da gurea.

Orduz geroztik, hazi da sindikatua ordezkaritzan, eta aberastu dugu ekosistema sindikala. Lan egiten dugu langile guztien errealitateari erantzungo dion sindikatua izateko. Borroka kolektiboak sustatzen ditugu, eraldaketa sozialerako burujabetza prozesua elikatu eta euskal esparru propioaren alde egiten dugu.

Eredu sindikala birpentsatu eta ikuspegi feminista, antiarrazista eta ekososzialista geureganatu ditugu, hasierako printzipioak aberastuz. Indarrean dagoen eredu ekonomiko eta soziala eraldatu nahi dugu. Lehenik, ez delako bidezkoa, patriarkala eta koloniala baita. Langileen, emakumeen eta herrien zanpaketan oinarritzen da; gazteak bitzita osorako prekarietatera kon-

denatzen ditu. Bigarrenik, gero eta bideraezinagoa delako, planetaren bizitza kolokan jartzen ari delako.

Ordutik hona asko aldatu dira gauzak. Aldaketa horietan eragile izan gara. Gure herrian ugariak dira grebak eta mobilizazioak. Langile borrokari esker, aurrerapenak egon dira lan eta bizi baldintzetan; preso, iheslari eta deportatuen etxeratze bidean eta askapen prozesuan. LABen ekarpena ezinbestekoa izan da aurrerapen horietan guztietan.

Dena aldatzera goaz. Mundu mailan aldaketa sakonak ari dira gertatzen. Duela 50 urte munduko hegemonia lehian zen, orain ere bai. Kapitalismoaren askotariko krisiek eragindako berrantolaketa bizitzen ari gara, basatia, inperialista, faxismoa hedatzea bultzatzen duena. Fase kapitalista honetan dirua esku gutxi batzuetan pilatzen da eta boterea kontzentratzen; etengabeko hazkundeari eutsi nahi eta

lehengaiak, erregaiak zein mineralak eskuratzeko, munduan hamaika gatazka (Ukraina, Palestina, Venezuela...) eragiten ari dira. Trumpismoak azkartu eta sakondu egin du atzeraldi erreakzionarioa, errezeta autoritarioak inposatuz, langile, emakume*, migratuen eskubideen kontra ez ezik, herrien burujabetza-ren aurka ere bai.

Faxismoa antifeminismotik eta arrazismotik elikatzen ari da. Oldarraldi atzerakoia indartzen du langile zaurgarriak, langile zaurgarriagoen aurka jarrita. Gurean ere nabaritzen da atzeraldia, indartzen ari dira joera matxistak, homofoboak eta xenofoboak. Zer egin

**Dagoenarekin ez
gara konformatzen,
euskal sindikalismo
eraldatzailea da
gurea.**

faxismo zaharberrituaren aurrean? Nola erantzun bizitzaren eremu guztietara hedatzen den prekarizazioari? Eta, eskubide nazional eta sozialen inboluzioaren aurrean, zer? Aldaketa sakona defendatzen dugu guk: bizitza erdigunean jartzea.

Euskal Herrian badaude aukerak askapen prozesuan aurrera egiteko, 78ko giltzarrapoa apurtu, nazio aitortza eskuratu eta Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako esparru sozioekonomiko propioa eratzeko. Badaude aukerak, lan eta bizi baldintzetan, langileen aldeko neurriak eta politika publikoak behartzeko. Martxoaren 17ko Greba Orokorra mugarria da egiten ari garen borrokaldian. Aberastasuna banatzeko beharra eta hemen erabaki nahi dugula aldarrikatzeko. Klase kontzientzia indartu eta klase elkartasuna adierazteko. 1976an bezala, orain ere langile antolakuntza eta borroka da bidea. Gora langile-borroka! ■



A portrait of Elena Beloki Resa, an elderly woman with short grey hair, wearing black-rimmed glasses, a black t-shirt, and a red shawl. She is smiling slightly and looking towards the camera. A small circular pin with a portrait of Rosa Luxemburg is visible on her t-shirt.

ELENA BELOKI RESA

Sortuko Nazioarteko arduraduna
eta Iratzar fundazioko kidea.

**«Gurea ez zen
soilik borroka
antifrankista bat,
gurea Euskal Herriaren
burujabetzaren
aldeko borroka da»**

TESTUINGURU POLITIKO
BEREZIAN JAZO ZIREN
MARTXOAREN 3KO
GERTAKARIAK. FRANCO
HILABETE BATZUK LEHENAGO
HIL ZEN, ETA ERREGIMENAREN
ETORKIZUNA JOKOAN
ZEGOEN. ELENA BELOKI (1961)
IRATZAR FUNDAZIOKO KIDEARI
EGINDAKO ELKARRIZKETA
HONETAN GARAI HARTAKO
TESTUINGURU POLITIKOARI
ERREPARATU DIOGU, EZKER
ABERTZALEAK IZANDAKO
JARRERA ETA IBILBIDEA
AZTERTU ETA GAUR
EGUNERAKO BALIAGARRIAK
ZAIZKIGUN IKASPENAK
ATERA ASMOZ.

Martxoaren 3ko sarraskia tes-
tuinguru politiko berezian gerta-
tu zen. Hilabete batzuk lehenago
hil zen Franco, aurreko irailean
izan ziren frankismoaren azken
fusilamenduak, nazioarteko tes-
tuinguru politiko eta sozioeko-
nomikoa oso ezegonkorra zen...
Nik 14 urte nituen Franco hil
zenean. Gogoratzen naiz hil zen
egunean geografia azterketa
geneukala. Guk zer gertatu zen
bagenekien eta eskaileretan eserita
geunden irakaslearen zain. Orduan
esan ziguten institutua hiru egunez
itxita egongo zela eta ez genuela
azterketarik izango. A ze poza hartu
genuen! Horrela bizi genuen mo-
mentua.

Frankismoa bizi izan genuen, ordea. Nire etxean ez ginen nazionalistak: nire aitona gorria zen, sindikalista, UGTkoa, bost urtez kartzelan egondakoa. Nire aita euskal jatorriko nafarra zen eta nire ama Arabako emakume bat. Aitona Arabar Errioxakoa zen, eta ez zen euskalduna. Aitona kartzelan egondakoa zenez, gure etxean bazegoen Francoren aurkako jarrera bat, Franco gurean beti izan zen munstro bat. Bagenekien zer zen errepresioa, ezagutu genuen zer zen beldurra, eta baita zer ziren isilpean eraman beharreko gauzak. Hori zen testuinguru antropologikoa, nolabait esatearren. Hori zen Hego Euskal Herriko etxe askotan bizi zena.

Nazioarteko testuinguruari dago-kionez, kontuan izan behar da nazioartean gertatzen diren aldaketak edozein tokitako azken txokoraino heltzen direla. Euskal Herrian ere nazioarteko eragina nabarmena zen orduan. Mundu mailan gertakari oso garrantzitsuak gertatu ziren urte horietan: Vietnamgo gerra, kolonialismoaren amaiera Afrikan, eta diktaduren garai berri bat ireki zen Latinoamerikan - Txilen, Argentinan...-. Bloke ideologikoak, beren baitan askotarikoak izan arren, oso agerikoak ziren. Hala ere, garai hartan hasi zen gerora ongi ezagutu dugun neoliberalismoaren loratzea.

1975eko Helsinkiko akordioak azpimarratuko nituzke egungo nazioarteko testuinguruarekin alderatzeko. Hiru multzo zituen akordio hark: segurtasuna, lankidetzeta eta giza eskubideak. Pentsa nola hitz egiten zen garai hartan segurtasunari buruz eta gaur egun nola hitz egiten dugun. Garai hartan segurtasunari buruz hitz egiten zenean hitz egiten zen buruan izanik lankidetzeta eta giza eskubideak. Gaur egun segurtasuna ulertzen dugu militarizazioaren ikuspegi batetik. Helsinkiko akordioak estatuen subiranotasunaren errespetuan oinarritzen ziren. Aipatzen ziren mugen bortxazko aldaketarik eza, herrien burujabetzari errespetua eta esku-hartzerik eza, gatazken elkarrizketa bidezko konponbidea, indarraren erabileraren baztertzea eta eskubideen berdintasuna. Gerra Hotzaren tentsioak baretzeko urrats garrantzitsuak izan zen Helsinkiko akordioa.

Azkenik, politikoki zein sozialki 1975-1976 urteak inflexio puntu bat izan zirela nabarmenduko nuke. Feminismoak garrantzi handia hartu zuen, orduan izan baitzen bigarren olatua. 1977an Euskal Herriko lehen Jardunaldi Feministak egin ziren. Garai hartan identitateen berreraikutza bat gertatzen da hasten delako onartzen heteroa ez zen beste paradigma bat, familia ereduaren aldaketa batekin batera. Aldi berean, indibidualismoaren gorakada bat gertatzen da, eta kontsumoari eta masa kulturari ateak irekitzen zaizkio.

Horrela iritsi ginen azaroan Francoren heriotzara. Formalki diktadura amaitu eta “trantsizio demokratikoa” hasi zen orduan.

Franco hil ondoren erregimena agortua zegoen eta sektore eta indar politiko ezberdinak eszenatoki politikoan eragiten saiatzen ari ziren. Zeintzuk ziren lehian zeuden eskaintza politikoak?

Erregimenean ez da haustura bat ematen, ematen da kontziliazio bat indar frankista eta Francoren kontrako oposizioan ziren indar batzuen artean. Hor alderdi komunistaren klaudikazioa trantsizioa onartzean argia da. Esan bezala, kontziliazio hori ematen da eta, beraz, ez da haustura bat ematen. Estatuaren botereek eta oligarkiek segitzen dute frankismoko berak izaten. Bestalde, sozialdemokrazia- ren papera ere azpimarratuko nuke, Espainiar estatuan Felipe Gonzalezen eskutik heldu zena. “Trantsizio demokratikoa” nazioartean homologatzeko ezinbesteko papera jokatu zuen. Eskuinak garai hartan ez zuen lortzen estatu espainiarra nazioartean homologatua izatea, eta paper hori betetzea sozialdemokraziaren esku utzi zen.

Gurean, ordea, klase dimentsio bat izan zuen aipatutako kontziliazio horrek. Hau da, estatuak euskal burgesiarekin negoziatu zuen zuzenean. Euskal burgesiak Txibertan ez du onartzen herri gisa fronte abertzale bat egiteko aukera eta haien kabuz negoziatzen dute estatuarekin. Euskal burgesiaz hitz egitean familia oligarkikoez eta Eusko Alderdi Jeltzaleaz hitz egiten ari naiz. EAJak estatuarekin trantsizio “lasai” bat adosten du; praktikan Euskal Herriari inposaketa bat. Inposaketa horrek gure herriarentzat ekartzen duena da, batetik, posfordismoak beharrezkoa zuen lurralde berrantolaketan gure industriaren birmoldaketa bat eta, bestetik, herri honen partizioa onartzea.

Horrenbestez, Hego Euskal Herriko eszenatoki politikoan lau familia politiko nagusi agertuko dira, batik bat. Alde batetik, nazionalismo kontserbadore eta katolikoa, jeltzaleek ordezkatzten dutena. Bestetik, ezker espainola, nazio auzia auzi sozialetik deslotzen duena. Nafarroan, aldiz, nafar eskuin unionista ageri zaigu, eta, azkenik, guk ordezkatzten duguna, Euskal Herria berri baten aldeko apustua egiten duen eta trantsizioan ezarritako marko politikoa onartzen ez duen ezker abertzalea.

Zein zen garai hartan ezker abertzaleak izan zuen jarrera?

Trantsizioa heltzen denean guk haustura demokratiakoaren aldeko hautua egiten dugu. Haustura eskatzen dugu, haustura eman ezean frankismoaren oinordekoek eta legatuak segituko zutelako. Eta hori da gaur egun oraindik estatuaren estamentu eta estantzia batzuetan, botere faktikoetan, ikusten duguna. Hala ere, azpimarratuko nuke ezker abertzaleak argi zuela gurea ez zela soilik borroka antifrankista bat, gurea

Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko borroka bat zela. Guk borrokatzen genuen Euskal Herria independente bat izateko. Eta gainera konbentzituta geunden lortuko genuela.

1975ean Txiki eta Otaegiren fusilamenduak gertatzen dira eta horren aurrean ematen diren altxamenduak. Nik uste dut hor hasten dela garatzen borroken arteko artikulazioen inguruko ideia, hau da, borroken artikulazio berri bat behar genuela proposatzen ari zenaren aurrean erantzun ahal izateko.

Debate ideologiko inportanteak eman ziren garai hartan, eszisio aro bat izan zen. Batzuek esaten zuten borroken artikulazio horretan dependentzia gehiegi zegoela estrategia politiko-militarrarekiko eta beste batzuek esaten zuten ikuspegi nahiko idealistak menperatzen zuela mugimendua. Orduan tesi marxistak eztabaidatzen hasi ginen eta gure egin genuen txanpon beraren bi aldeen ideia. Hori Vietnamentik ikasi genuen: ez dago (euskal) sozialismorik subjektu nazional subiranorik gabe. Hori izan zen oso garbi geratu zitzaigun ideia, gure pentsamenduaren ordena ezarri zuen ardatza.

Uste dut oso sortzaileak izan ginela garai hartan. Garairako elementu oso berritzaileak ekarri genituen. Lehen, orain aipatu bezala, nazio askapen borroka askapen sozialarekin uztartzea. Europa mailan horrek berritasuna suposatzen zuen, nazio askapen borrokak oso kontserbadoreak baitziren. Bestetik, herritartasunaren ideia berri bat sortu genuen: nor da euskal herritarra? Euskal Herrian bizi eta lan egiten duena, eta euskaldun izan nahi duena. Uste dut harro egoteko elementua dela. Antolakuntzari dagokionez ere



*"Trantsizioan ezker abertzaleak
haustura demokratikoaren
alde egin zuen"*

*"Ez dago sozialismorik subjektu
nazional subiranorik gabe"*



asmatzen jakin genuen. Garai hartan abangoardia alderdi ortodoxoak ziren nagusi ezkerreko mugimenduetan. Gurean, kontrara, bloke historiko iraultzaileen aldeko apustua egin genuen. Praktika horrek egin gaitu eta gure kultura militantea markatu du.

Hausturaren indarrak KAS alternatibaren bueltan batu ziren. Zeintzuk ziren aldarrikapenak? Zein garapen izan zuen?

KAS Alternatiba Euskal Herriarentzat normalizazio politikoa ahalbideratuko lukeen gutxieneko programa zen, ondoren berau lortzera bidean sortutako antolakuntza forma batean bilakatu zena. Hau da, trantsizioan espainiar estatuari pultsu politikoa eusteko eskaintza eta antolakuntza eredua bat zen, funtsean, KAS. Garai hartan uste genuen lortuko genuela negoziaketa prozesu baten bidez KAS Alternatiba betetzea.

KAS Alternatiba ez zen programa iraultzaile bat: amnistia preso politikoentzako, askatasun demokratikoak, alderdi politiko independentistak legeztatzea, indar errepresiboak desagitea eta Euskadiren -horrela deitzen genion garai hartan- subiranotasun nazionala aitortzea. Horrek berarekin ekarri behar zuen Euskal Herriak bere nazio proiektua askatasun osoz garatzea eta estatu propio bat sortzea. Hori zen gure estrategia. Bide horretan Hegoaldean autonomia estatutu nazional bat ezartzea zen helburua.

Egia da KAS Alternatiba betetzea ez genuela lortu, eta maila horretan esan dezakegu porrot egin genuela. Kontuan izan behar da, hala ere, proposamen horrek bi helburu zituela. Lehen helburua zen prozesu demokratiko baterako oinarriak jartzea. Bigarrena, espainiar



estatuan ematen ari zen erreformaren aurrean sortu berria zen mugimendu abertzale eta sozialistaren asimilazioa ekiditea. Horregatik, KAS Alternatibaren puntuak betetzea lortu ez dugun arren uste dut herri boterearen eraikuntza, kultura politiko propioa sortzea, askapen mugimendua bloke bezala eta ez abangoardia alderdi bezala antolatzea... aurrerapauso handiak izan direla.

Ezker abertzaleak orduz geroztik sormen gaitasun handia erakutsi du antolakuntza eredu berriak eta bake prozesu berriak martxan jartzerako orduan. Argeletik gaur egunera arte. Aldebikotasuna aldarrikatu izan dugu historikoki eta bide hori ixtean -10 urteko ilegaltasun prozesu baten ostean- gai izan ginen aldebakarreko modelo bat martxan jartzeko, eta bide horretatik heldu gara gaur egun gauden tokiraino.

1976an, Franco hil ondoren, Gasteizen gertatutako sarraskiak ondo adierazten du “dena ondo

lotua” utzi zuela Francok. Erreformaren ardatzetako bat monarkiaren berrezartzea izan zen.

Guk beti kuestionatu dugu monarkia. Beti esan dugu Koroaren existentziak berak legitimatzen zuela aurreko erregimenaren garapen historiko eta politikoa. Ezker abertzalean oso garbia izan da beti monarkiaren aurkako

“Hausturaren aldeko apustuan berresten gara”

posizioa. Gu errepublikarrak gara, euskal errepublika aldarrikatzen dugu, eta iruditzen zaigu hori dela estatu eredu hoberena lurralde bateko herrien aitortzarako. Koroa, kontrara, beti izan da sektore atzerakoiaren erreferentzia, erregimenari jarraipena eman dion figura eta Espainiaren batasunaren seinale eta ikurra. Horiek dira Koroaren funtzioak. Trantsizioaren berme maximoa izan da koroa eta berarekin, noski, baita armada ere,

Erregea baita indar armatuen burua eta Espainiako erresumarena.

50 urte geroago, orduko korapilobera askatzeke dago oraindik. Badago aukerarik?

Francoren heriotzatik 50 urte igaro direnean, gero eta argiago dago 78ko erregimenaren eredu agortuta dagoela. Krisi hori bi mailatan antzematen da. Batetik, elite politiko eta ekonomikoen arteko adostasun faltan. Bestetik, eliteen eta herritarren arteko konfiantza hausturan. 78ko erregimenaren krisi horren aurrean lehia bat dago irekita: irtenbide autoritario bat inposatzea edo sakontze demokratikorako aukera bat zabaltzea.

Egoera horren aurrean, indar subiranista eta eraldatzaileok hausturaren aldeko apustuan berresten gara. Gure helburua ez da soilik eskuin autoritarioa geldiaraztea, baizik eta erregimenaren agortze testuinguru honetan alternatiba politiko propio bat eraikitzea, estatuko nazioen aitortzan eta autodeterminazio eskubidean oinarritua. ■



VITORIA OB...EROS MUE...



El 3 de marzo de 1976 a la salida de
de San Francisco, dispara contra los tr

r arma de f

1976

trada en me



● Diktadura hilzorian

► 1973/04/19

Eustakio Mendizabal "Txikia" poliziak hila Aberri Egunaren bezperan.



► 1974/06/19

Juan Carlos de Borbón Estatu Buru izendatua. Irailaren 2ra arte egon zen karguan, Francisco Franco diktadorea osatu zen arte.



► 1975/11/20

Francisco Franco diktadorea hil zen.



► 1976/08/30

KAS Koordinadoraren aurkezpena Iruñean.



► 1973/12/20

Luis Carrero Blanco, Ministroen Kontseiluko presidentea, ETAren ekintzak hila.



► 1975/09/27

Francoren erregimenaren azken 5 fusilamenduak. Hilketak salatzeko hiru greba egun egin ziren hilaren 28, 29 eta 30ean, salbuespen-egoera indarrean egonik ere.



► 1975/11/22

Juan Carlos de Borbónen koroatzea (Estatu buru urrian izendatu zuten).

► 1977/05/08

Amnisiaren aldeko astearen hasiera. Hilaren 13an Greba Orokorra egin zen, eta Gipuzkoan, bereziki, istilu larriak izan ziren. Guardia Zibilak Rafael Gomez Jauregi hil zuen Oreretan.



► 1977/07/10

Askatasunaren Ibilaldiaren hasiera; hilaren 14ean Telesforo Monzón Hego Euskal Herrira itzuli zen ekimenean parte hartzeko.



► 1978/12/06

Konstituzioa berresteko erreferenduma. Hego EHn, parte hartzera deitutako herritarren herenak baino gutxiagok babestu zuen.



► 1977/05/15

Lehenengo hauteskunde politikoak Francoren heriotzaren ostean.

► 1977/10/25

Moncloako Itunak sinatu ziren.

► 1978/04/27

Herri Batasuna hauteskunde-koalizioa sortu zen.

3 de Marzo, ejemplo para la lucha de liberación



RAFA DIEZ USABIAGA
Ex-Secretario General de LAB

El 50 aniversario de los asesinatos del 3 de Marzo es una fecha de indispensable memoria y análisis por tratarse de unos acontecimientos que marcaron el devenir del pulso de clase y proceso de liberación nacional de nuestro país. La muerte de cinco trabajadores por la acción criminal y planificada de la Policía nacional española, bajo la responsabilidad de un Ministerio del Interior pos-franquista, y posterior fundador del PP, Manuel Fraga Iribarne, fue la respuesta del régimen post-franquista al auge de las luchas y reivindicaciones obreras que en aquellos inicios de la llamada “transición” se intensificaron en la búsqueda de un nuevo marco de derechos y libertades.

Franco había muerto unos meses antes, y en Euskal Herria, como en otras latitudes territoriales en el Estado Español, el movimiento obrero y político estaba en plena efervescencia para dar cauce a los anhelos de una sociedad que reclamaba, de forma mayoritaria, la legalización de partidos políticos y sindicatos, en el marco de una restitución de las libertades democráticas, y el impulso de políticas de cambio que respondiesen a las demandas nacionales y sociales básicas.

Pero es importante analizar de manera sintética siquiera los escenarios político, económico y sindicales en los que se produjeron los asesinatos del 3 de Marzo en Gasteiz.

Escenario político

El proceso de Burgos en diciembre de 1970 marcó un punto de inflexión en la internacionalización

de la lucha anti-franquista y la proyección de la lucha de liberación nacional del pueblo vasco. Más tarde, Franco sufrió un golpe letal con el ajusticiamiento por parte de ETA en diciembre de 1973 del Presidente de Gobierno, el Almirante Carrero Blanco, llamado a ser el sucesor del régimen fascista tras la muerte del dictador, lo que acentuó la crisis de reproducción del propio sistema franquista.

A nivel estatal, la Plataforma de convergencia democrática impulsada por PSOE, MCE, Partido Carlista, ORT, UGT... y la Junta democrática promovida en 1974 por el PCE, PTE, CCOO... estaban negociando una fusión que permitiría presentar una propuesta conjunta de transición democrática que recogía las reivindicaciones de amnistía, retorno de exiliados, instauración de libertades políticas, reconocimiento de autonomía de las regiones españolas y la exigencia de elecciones. Así surgió la “platajunta” en el propio marzo de 1976.

En este contexto pre-transición, el PSOE, en su congreso Suresnes ce-



lebrado en octubre de 1974, además de exigir la amnistía, libertades democráticas, libertad sindical... reivindicaba “el reconocimiento del derecho de autodeterminación de todas las nacionalidades ibéricas”. Y en coherencia decían: “el PSOE se pronuncia por la creación de una República Federal de las nacionalidades que conforman el estado español”. Posiciones que fueron rápidamente olvidadas mientras avanzaba la llamada transición en un ejercicio de desmemoria y renuncia política que le alineó con la derecha post-franquista en el modelo territorial.

Mientras, en Euskal Herria, las luchas sociales y la intervención de ETA eran sinónimo de una resistencia antifascista y demanda de una ruptura democrática que reconociese los derechos nacionales de Euskal Herria y los derechos sociales y sindicales, dentro de un proceso que debía tener como punto de

partida la amnistía y la instauración de las libertades democráticas. La máxima referencia organizativa y su impronta quedaría proyectada en los contenidos de la alternativa KAS planteada en 1975, propuesta para un marco democrático nacional similar a la de la Platajunta a nivel de Estado.

No obstante, en el seno de la Izquierda Abertzale se vivían momentos críticos ante el previsible escenario de transición política que se abría con la muerte del dictador Franco. Las escisiones en ETA, sus consecuencias en las estructuras y dinámicas del movimiento político y social, marcaban horizontes de fragmentación que facilitaban el desembarco político que el PNV estaba iniciando para liderar el proceso político en Hego Euskal Herria, tras una estrategia de espera después del fracaso de sus expectativas puestas en la intervención de los aliados ante el franquismo y haber

gestionado las contradicciones internas de tomar parte en posiciones unitarias con otras fuerzas políticas frente al dictador (Munich, 1962).

Escenario económico

El modelo económico, con un país “cerrado” todavía al turismo masivo y con un tejido industrial propio con retrasos tecnológicos para competir en el mercado internacional, tuvo que recurrir a “abrirse” al capital multinacional para impulsar su desarrollo socio-económico. De esta manera, el franquismo se “ofreció” a multinacionales que buscaban rentabilizar sus negocios (expansión y beneficios) a costa del marco de condiciones laborales restrictivas que imponía el Régimen a través del Sindicato Vertical.

Michelin, Mercedes, Firestone... impulsaron una industrialización que conllevó, desde finales de la década de los 60 e inicios de los años 70, un flujo de personas trabajadoras



del Estado a territorio vasco que se trataba de utilizar en la ansiada disolución cultural y lingüística de la nación vasca perseguida por el Régimen. Pero sería precisamente en esas grandes empresas donde las luchas socio-laborales fueron adquiriendo importancia en el escenario socio-político. Las huelgas de Bandas (1966), Michelín (1972), Motor Ibérica (1973), AHV (1975), Potasas (1974-75), Forjas Alavesas (1976), Michelín Lasarte (1976) y Fundiciones Eztanda de Beasain (1976) dan fe de esta realidad, que se aceleraría tras la muerte del dictador, junto al ansia colectiva de un marco democrático y de libertad sindical, provocando un contexto de las múltiples luchas obreras que en el caso de Gasteiz desembocarían en los sucesos del 3 de Marzo de 1976.

Estábamos pues en un escenario donde la oligarquía vasca estaba

bien situada en el modelo autárquico industrial instalado y se preparaba para una “apertura”, posible acercamiento al Mercado Común Europeo, que podía ser rentabilizado en cotas de poder político y económico tanto en el sector industrial como financiero. La represión franquista favorecía la acumulación de capital de la gran burguesía y oligarquía vasca, con personajes que fueron cómplices de la explotación social y la opresión nacional. Tenemos referencias de esa consideración del franquis-

**Es imposible de
deslindar el 3 de
Marzo de la lucha
política y social que
se desarrollaba en
Hego Euskal Herria en
la década de los 70.**

mo a esos traidores y oligarcas en la denominación del emblemático tren TALGO: Tren Articulado Ligero Goikoetxea Oriol. Una empresa “española” que curiosamente pasará a tener accionariado “vasco” en los próximos meses.

En este marco específico de evolución del Régimen influyó de manera importante la crisis del petróleo que sacudió la economía mundial desde finales de 1973. El embargo del petróleo de los países árabes a Occidente por el apoyo de estos a Israel en la guerra del Yom Kippur tuvo una importante influencia en economías, como en el caso de Euskal Herria y Estado español, que se vieron afectadas por una enorme inflación y paralización del crecimiento económico. Cuestiones que incidían en las economías populares e impulsaron las luchas obreras por mejores condiciones laborales y salariales.



debate y decisiones de una asamblea de trabajadores y trabajadoras. Y, por ello, la acción de la Guardia Civil persiguiendo o reprimiendo la celebración de las asambleas que se convirtieron en objetivo clave para romper y neutralizar la evolución de la Huelga. Cuestión ésta que se manifestó de manera trágica en los sucesos del 3 de Marzo en Gasteiz.

Asimismo estábamos en aquellos momentos ante los primeros movimientos organizativos para la proyección de sindicatos ante su posible legalización en el nuevo contexto político. Unas organizaciones sindicales que estaban muy influidas por partidos políticos (que también esperaban a ser legalizados, algo que no sucedería hasta 1977) y se iban instalando como sus “correas de transmisión” en un modelo que posteriormente provocaría contradicciones de diferente naturaleza. El PCE y otros sectores de izquierda como MCE impulsaban CCOO, el PSOE hacia lo propio con UGT, el PNV influía en el desarrollo de ELA, la izquierda abertzale ponía


Escenario sindical


El Sindicato Vertical instaurado por el franquismo (jurados de empresa, enlaces sindicales) había sido “tomado” por militantes obreros que, desde la clandestinidad organizativa, se “infiltraban” en los procesos electorales establecidos por el Régimen en las grandes empresas. Las últimas elecciones en 1975 habían posibilitado ese aterrizaje y facilitado el desarrollo de un movimiento asambleario y luchas obreras de gran alcance y dimensión en la sociedad vasca. La conflictividad iba en aumento y la capacidad y extensión de los núcleos organizados estaba poniendo en jaque al Régimen tanto en Hego Euskal Herria como en el Estado.

La muerte del dictador fue un acicate en el impulso de unas luchas obreras interrelacionadas con la lucha por libertades democráticas que en Euskal Herria se entrelazaban con una reivindicación nacional determinante para establecer un marco democrático. Las luchas obreras estaban dinamizadas por un movimiento asambleario que,

desde el debate y la democracia directa, era un factor cohesionador del sujeto de clase e impulsor determinante de su capacidad de confrontación contra unas patronales que contaban con el apoyo del Régimen y de sus brazos represivos.

Mi propia experiencia en la huelga de 100 días en Michelin Lasarte en febrero de 1976 es un ejemplo claro de una huelga pivotada en el





en marcha LAB, mientras otros partidos minoritarios como ORT y PTE se organizaban en el SU y CSUT.

Esta “parcelación” sindical conllevó el debilitamiento progresivo del movimiento asambleario ante unos aparatos sindicales que empezaban a priorizar intereses corporativos sobre la fuerza colectiva del sujeto de clase. Especialmente significativo fue la evolución en este sentido de CCOO, UGT y, especialmente ELA, que en muchas ocasiones boicoteaban o eludían el movimiento asambleario para operativizar sus posiciones e intereses corporativos. Estas tendencias fueron el preludio

de políticas pactistas muy en sintonía con las posiciones reformistas de otros actores políticos. LAB mantuvo la bandera del movimiento asambleario, persistiendo en su caracterización de organización de masas, hasta que ya a finales de 1977, no sin debate, decidimos convertirnos en sindicato.

Así pues, lo que se inició en el otoño de 1975, con la constitución de LAB como cauce organizativo para militantes independentistas y socialistas, superando modelos e intentos anteriores (Frente Obrero, LAIA...), fue desarrollándose en un marco de gran activismo y luchas

obreras que tuvo en el 3 de Marzo una palanca de conciencia y compromiso colectivo.

3 de Marzo 1976: Cinco asesinatos en Gasteiz y un cambio de paradigma de la lucha obrera

En este escenario político, económico y sindical tiene lugar, pues, la sangrienta respuesta de los gestores del franquismo. En sus primeros meses tras la muerte del dictador, estaban percibiendo que el movimiento obrero y político disponía de fuerza y capacidad de neutralizar la reproducción del franquismo e impulsar una verdadera ruptura democrática, así que lo que pretendieron en Gasteiz fue dar una respuesta ejemplarizante para condicionar el desarrollo de esa lucha. De ahí ese “entren con todo” del mando de la Policía Nacional que provocaría la muerte de cinco trabajadores y cientos de personas heridas.




Así pues, el 3 de Marzo es imposible de deslindar de la lucha política y social que se desarrollaba en Hego Euskal Herria en la década de los 70 para confrontar con la dictadura moribunda, conseguir conquistas socio-laborales y darle cauce al conjunto del proceso de liberación nacional y social. ■

Las luchas obreras estaban dinamizadas por un movimiento asambleario que, desde el debate y la democracia directa, era un factor cohesionador del sujeto de clase.

por lo que tienen que salir. A las cinco y diez minutos comienza la fuerza pública a romper cristales, introduciendo botes de humo. Los reunidos aguantan un cuarto de hora en el interior, intentando respirar por

OS T

3.ek
RTX



de los cuales solo se tienen noticias o cuatro que necesitan de una cura o primera urgencia. En la residencia sanitaria de la Seguridad Social de Arona, ha ingresado una persona, también para observación, que resultó herida al golpearse con un coche y caer hacia atrás, cuando


● Krisi politiko, sozial eta ekonomikoaren mugarriak

▼ 1974/11/30

Petrolio-krisia. Krisiaren eraginez inflazioa %16 ingurukoa izan zen; 1977an, berriz, %28ra iritsi zen.

▼ 1973/06/14

Greba Orokorra Nafarroan, Motor Ibéricako langileekin elkartasunez.



▲ 1980/03/10

Langileen Estatutua onartzen da.

▲ 1978/02/20

Bizkaiko AHVn greba:
9.500 langile greba
mugagabera deituak.

▲ 1978/02/01

Franco hil ondorengo lehen
hauteskunde sindikalen
epearen hasiera; bi aste
lehenago onartu zen
dekretuz araudi berria.



► 1974/12/11

Greba Orokor arrakastatsua EAEn, lan-baldintzak hobetzea, soldatak igotzea eta eros-ahalmena berreskuratzea aldarrikatzeko.



► 1975/01/07

Potasas-eko langileek meategiaren okupazioa hasi zuten; 21 egunez egon ziren bertan, soldaten igoera eskatzeagatik kaleratutako lankideen berronartzearen alde.



► 1975/05/01

Frankismo garaiko azken hauteskunde sindikalen epea hasi zen.



▲ 1977/05/13

Sindikatuak eta langileen erakundeak legeztatzeko dekretua publikatu zen.



▲ 1976/09/13

Greba Orokorra Euskal Herrian Josu Zabala hilketari salatzeko. Zabala Guardia Zibilak hil zuen hilaren 8an Hondarribian, langile manifestazio batean parte-hartzen ari zela.



▲ 1975/12/09

Ezkerrak eta mugimendu sozialek beti gogoratu, aldarrikatu eta “ospatu” izan dituzte ezbeharrak eta errepresioa. Maiatzaren 1a (Haymarket-eko grebalariak), martxoaren 8a (Triangle Shirtwaiste-eko grebalariak) edota ekainaren 28a (Stonewall-eko LGTBIAQ+ komunitatea) dira honen adibide, gure egutegian errotuladore gorriarekin markatu ohi ditugun datak. Baina bada Euskal Herri mailan gure memoria eta egutegietan markatuta geratu den maiatzaren 1 propio bat: martxoaren 3a.

Eta guri, belaunaldi horren seme-alaba eta bilobei dagokigu borroka horien lekukoa hartzea, transmisio hori egitea eta M3moria lantzea. Hori dela eta, gaurkotasun handia izan dezaketen lokarri naturalak ezarri daitezke borroka horien eta gaur egungo borroken edo egoeraren artean, transmisiorako zein pentsamendu kritikoa lantzeko baliozkoak izan daitezkeenak.

Martxoaren 3ko memoriak ez digu soilik langile mugimenduz hitz egiten, memoria konpartitu bat da, memoria poliedrikoa; eta ertz bakoitzak berezitasun batez hitz egiten digu. Zaramagako memoriak migrazioaz hitz egiten digu. Hamarkada horietan Gasteizera zein Euskal Herriko beste auzo eta txoko askotara bizi eta lan egitera etorri ziren migrante horietaz. Errekaleorrez, *un mundo mejor* egiten saiatu zirenez ari gara, Barroso Chaparro bezalako familiez. Garai hartan Gasteizek eta Euskal Herriak kanpotik etorritako milaka eta milaka langile familia horiek integratu eta bere gizartearen parte egin zituen, 1976ko borroka horien motore izan zirelarik. Horren isla da elizan eraildako bost langile horietatik bakarra zela Gasteizen jaiotakoa.

M3moria hau ere emakumeen borroka eta artikulazioaz mintzo da. Noraino helduko ziren greba horiek sabel hutsekin? Propagandarik eta saretzerik gabe? Horrelako greba-prozesu luzea eraiki eta mantentzeko beharrezkoa da amarauna indartsu bat sortzea, ondo koipeztutako engranaje osaturiko makineria. Eta trenetan erabiltzen zen ikatzezko galdara hori elikatzen zuten gidariak izan ziren emakumeak.

Areitio bezalako enpresetan emakumeek borroka bikoitz bat eramane behar izan zuten aurrea. Batetik, ugazaben aurka eta, bestetik, grebara ateratzen ez ziren

gizonen aurkako borroka. Fabriketako langileen emazteak ere antolatzen hasi ziren, haien asanblada eta manifestazio propioak eginez. Asanblada horietan ez zen bakarrik haien bikoteen lan-baldintzetaz hitz egiten, bizitzaren garestitzeaz hitz egiten zen, langile-auzoen utzikieriaz, zerbitzu faltaz eta antisorgailuez. Xaboiak gehiago irauteko edota produktu berdinekin janari gehiago lortzeko trikimailuak ikasi eta elkar-partekatzen zituzten. Kalera atera ziren eta erosteko poltsa hutsekin manifestatu, ezer erosteko adina dirurik ez zutela adierazteko. Auzoetatik abiatu, merkatuetatik igaro eta erdigunean amaitzen zituzten, Andra Maria Zuriaren plazako monumentuari bueltak emanez, poliziak mespretxuz “uso” ezizena jarri zielarik. Haiek izan ziren zaintza-lanak egin zituztenak greba guztian zehar, poliziak jarraitzen zituzten langileei ateak ireki zizkietenak, zaurituak zaindu eta nekatuta zeudenei jaten eta edaten eman zietenak.

Borroka horiek ere borroka molde ezberdinen originaltasunaz eta ideia berritzaileez hitz egiten digute. 40 urteko errepresio, bertikaltasun eta “ordena”-ren ideien ondoren, langileak asanbladetan antolatu ziren, edozeinek bere iritzia emanez eta langile izatearen duintasuna berreskuratuz. Asanbladak bilakatu ziren langileen bozgoragailu eta eskola politiko. Horrez gain, batzorde ordezkatzailerak aukeratu zituzten, asanbladak

hartutako erabakiaren igorle papera jokatu, edozein momentutan baliogabetu eta beste pertsona bat aukeratzeko eskubidea bermatuz. Soldataren igoera linealarengatik borrokatzen zuten, denek 5.000 edo 6.000 pezeta gehiago kobratzeko, ehunekoei ezberdintasunak are agotu egiten baitziren. Emakumeek ere haien metodo abanguardistak ezarri zituzten, enpresa barruan “sugea” eginez, grebara deitzeko balio zuen ilara bat, geroz eta emakume gehiago batzen zirena. Eta, nola ez, gogoratu behar dugu nola heldu den Martxoaren 3ko memoria guganaino. Ez da heldu instituzio publikoek bultzatu dutelako, nahiz eta gaur egun elkarri ukondoarekin bultzaka ibili Martxoaren 3ko monolitoan loreak jartzeko. Nabarmentzekoa da Alderdi Popularrak, Fraga Iribarne ohorezko presidente duen alderdiak, bere burua behartuta ikusi duela argazki horretatik kanpo ez geratzera, 2023an lehenengoz jarri zituztelarik loreak monolitoaren aurrean.

Eta nola heldu da bizirik M3moria hau? Urtez urte oso egun berezia da martxoaren 3a Gasteizko eta Euskal Herriko kontzientzia kolektiboan, baina ezin dugu perspektiba gald. Egon dira urte zailak, zeintzuetan ahaztearen aldeko politika bat bultzatu zen eta indar polizialak manifestazioen aurka oldartzen ziren.

Hasieratik saiatu ziren langileak gertatutakoa azaltzen, idazten, transmititzen eta kantatzen. Liburu

eta paskin asko idatzi zituzten klandestinoki, gertatutakoa azaltzeko eta zabaltzeko, horietako askotan “irakurri eta pasatu” esaldia agertzen zelarik. Hitzaldi eta kanta ezberdinak egin ziren, transmisioak bakarrik egiten duelako ahanzturaren kontrako borroka.

Horrez gain, urtero antolatu dira sarraskia eta justizia falta salatze-ko manifestazioak. Hasiera batean langileak beraiek antolatzen ziren greba deitzeko egun horretan eta manifestazioa antolatzeko. Geroago sindikatuak sartu ziren, nahiz eta batzuk 80ko hamarkadan joateari utzi eta deialdiei uko egin. Gasteizko langileriaren gogoaren, grinaren, lanaren eta, are, burugogorkeriari esker mantendu da manifestazio hau, non, 2000. urte-
tik, martxoaren 3ko elkarteak ere deitzen duen.

Langileen antolakutzaren eta instituzioen ahanzturaren sinbolo nagusia monolitoa bera izan daiteke. Oroimen leku bat egiteko saiakerak 1976tik bertatik egon ziren. 80ko hamarkada hasieran eraildakoak gogoratzeko leku bat sortzen saiatu ziren, Pedro Maria Martinez Ocio erail eta bere odolarekin JUSTIZIA hitza idatzi zuten lekuan, baina poliziak hauek kentzen zituen biharamunean. Hori dela eta, 1983an (Felipe Gonzalezek jadanik gehiengo absolutua zuen momentu batean) Forjas-eko langileek (Pedro Marik lan egiten zuen enpresako lankideek) ukabilaren eskultura egin eta gauez joan ziren hau

kokatzera, zementu azkarra bota eta bertan kokatu zuten. Poliziak ezin izan zuenez kendu gaurdaino heldu da herriak egindako monolito hau. Zein paradoxikoa den klandestinoki eta modu ilegalean jarritako monolito batean instituzio guztiek loreak jartzea.

Nekaezina izan da Martxoaren 3ko elkarteak egindako lana. 1999. urtean sortu zenetik, egia, justizia, erreparazioa eta berriro ez gertatzearen aldeko bermeak lortze-gatik borrokatuz. Hauek sekretu ofizialen lege frankistarengatik zein Espainiar estatuko inpunitate ereduarengatik ukatuak izan dira, Argentinaraino heldu behar izan direlarik justizia eske. Indar berezia jarri dio elkarteak transmisioari, horren isla direlarik urtero egiten dituen 200 hitzaldi eta bisita

gidatuak edota urtez urte errepi-katzen den Martxoaren 3ko manifestazioak, gogoratzea eta justizia eskatzea helburu dutenak, baina, aldi berean, gaur egungo borrokei bozgoragailua ematen dietenak.

2018an sortu genuen Memoria Gara elkarte, sarraskia gertatu zen San Frantzisko elizan memoria-zentro bat eraikitze-ko nahiarekin. Esan ziguten ezinezkoa izango zela, baina, gaur egun, badirudi posible dela. Jarrai dezagun lanean amets hau errealtate bihurtu dadin, Martxoaren 3ko biktima eta langileek gertatutakoa azaltzeko leku duin bat izan dezaten, iragana eta orainaren arteko irakurketa kritikoak bultzatzen dituen zentro bat.

Martxoaren 3aren transmisioak ere balio behar digu belaunaldien arteko zubiak eraikitze-ko, garai hori bizi eta borrokatu zutenak entzute-ko, haiengatik ikaste-ko, haien borroka-moldeak eguneratze-ko eta akatsetatik ikaste-ko. Erraldioen gainean eraiki dugu gizarte hau. Eta gazteenei dagokie haien aitona-amonen bizipenak batzea, jasotzen ez dena betirako galtze-ko arriskuan baitago. Haiek direlako erail ezin izan zituzten Forjaseko langileen bilobak eta haiei dago-kielako borroka horren lekukoa hartzea. ■





II AURITZEN

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK - (K.A.S.)

TRAGEDIA ETA HAINITZA

TRAGEDIA Y GLORIA

GASTEIZ



Memoriaren beharra eta Zabaltzen Dokumentazio Zentroa

Historia garaileek idazten badute, gure herriaren eraldaketa soziala eta askapen nazionala lortu nahi dugunok erronka bikoitza dugu memoriaren eta kontakizunaren arloan. Alde batetik, diktaduran odolez eta suz inposatutako historia eta, trantsizio makillatuaren bidez hedatutako diskurtsoa deseraikitzea. Bestetik, gure herriaren eta langileriaren duintasunaren alde borrokatu zirenen bizipenak berreskuratzea, berreraikitzea eta balioestea.

Aipatutakoak, gai berria izan ez arren, ez du beti praktika erraza. Estatuak propaganda eta ideologizazio makinaria osoa erabili du fikzioa mantentzeko eta benetako gertaerak ezkutatzeko; pentsamendu-paradigma bat ezarri du, gertaerak bertsio ofizialetik kanpo interpretatzeko bestelako moduak ukatuz. Egoera hori indargabetzea lehentasun bihurtu da egungo tesuinguruan.

Eskuin muturraren gorakada, balio demokratikoen inboluzio eta faxismoaren zuriketaren tesuinguruan, premiazkoa dugu ideologikoki berrarmatzea eta askapen borroka-rekin bat egiten duten belaunaldi berriei iragana behar bezala interpretatzeko tresnak eskaintzea, gure helburuak eraginkortasunez lortu nahi baditugu behintzat. Memoria gordetzea, lantzea, transmititzea eta zabaltzea ez da soilik kontserbazio ariketa bat: ezinbestekoa dugu aurrera egiteko, gure identi-

tatea indartzeko eta komunitate zein klase-kidetasuna eraikitzeko. Memoria modu kolektiboan egiten bada, komunitatearen nortasuna eta jarraikortasuna indartzen eta babesten dira.

LABen 50. urteurrenak gure sindikatuaren heldutasunaz eta gure ondarearen balioaz jabetzeko balio izan digu. Giza ondarea, ondare politiko eta kulturala, ondare dokumentala eta ondare immateriala, ikaragarria da sindikatuak berrogeita hamar urte hauetan sortzea lortu duena, eta eguneroko jardunean sortzen jarraitzen duena. Ondare guzti hori babesteko eta gordetzeko apustu sendoa egin berri dugu ZABALTZEN Dokumentazioa Zentroa sortuta.

Baina efemeride horren ospakizunak erronka berri baten aurrean kokatu gaitu: LABetik lan-ildo memoristikoa irekitzea, testu honetan egiten ari garen diagnostikoari erantzungo diona. LABek, sindikatu gisa, arlo honetan egin behar dituen eta egin ditzakeen ekarpenak pentsatzea dagokigu, bizi dugun une politikoari eta ditugun erronkei erantzuteko helburuarekin.

Memoria kolektiboa elikatu nahi dugu esperientzia militante guztiei modu polifonikoan leku bat eginda

Memoria lantzerako orduan, klase-ikuspegia lehenetsiz, egiteko bikoitza izango dugu: lehenik, gertaera historikoak interpretaatzeko oinarri ideologiko sendo bat eraikitzea, errealitatearen analisi kritiko eta erradikal batean oinarritua. Beharrezkoa den autokritika egiteak, logika zahar eta berrien arteko orekak bilatzeak, pertsonek proiektuarekiko duten identifikazio ideologikoa indartzen dute. Iraganaren aldarrikapen zintzoak sinesgarritasuna ematen die egungo praxiari eta etorkizuneko proposamenei.

Gure ildo memoristikoa garatzerako orduan efemerideetan oinarritutako oroitzapen-dinamika hutsean ez geratzea proposatzen dugu. Kontrara, prozesu historikoen gakoak detektatu nahi ditugu, gaur egun baliagarriak zaizkigun irakurketak eta irakaspenak atera ahal izateko, gure bidean aurrera egiten lagunduko digutenak.

Bestetik, memoria kolektiboa elikatu nahi dugu, esperientzia militante guztiei modu polifonikoan leku bat eginda. Memoria subjektiboa da, egungo ikuspegitik egindakoa, eta balorazio pertsonalek baldintzatzen dute. Memoria norberaren nortasunaren osagaia ere bada, ordea, eta zeregin garrantzitsua du gizartearen eta komunitatearen garapenean, baina baita aldaketetan ere.

Argi dago memoria kolektiboa ezin dela soilik ikuspegi indibidualetatik



eraiki, baina, era berean, ezin dugu gizabanakoen kontakizunak duten informazioa baztertu. Are gehiago, horrelako kontakizunak oso balio-tsua dira “historia ofizialari” aurre egiteko bide bat irekitzen dutelako. Berez, memoria kolektiboa horrela osatzen da. Era horretan eraikitako kontakizunak heterogeneoak dira, bazterrean egondako pertsonen memoriak ere jasotzen baitira, alegia, emakumeenak, pertsona migranteenak edota arrazializatuenak. Guzti horiek elementu komun bat dute: aintzat hartzen ez genituen gertakari edo ikuspuntu sozial, politiko eta historiko berriak erakusten dizkigute, beste historia bat berrezagutzeko aukera ematen digute.

Era berean, kontuan izan behar da memoriaren berreraikitzea gatazkatsua izan daitekeela, eta prozesu horretan unean uneko eztabaida sozial eta politikoak azalaraziko direla. Baina memoria berreskuratzea da isiltasunari alternatiba bakarra; askotan iraganeko bizipenenek sortzen duten sufri-

mendua gainditzea eragozten duen isiltasuna. Horrenbestez, kolektiboen erresilientzirako estrategia bihurtzen da memoria. Memoria kolektiboa lantzeak aukera ematen du talde identitateak eraikitzeko edo berreraikitzeko eta, aldi berean, norbanakoek beren identitate edo nortasuna adierazteko.

Horrez gain, azpimarratzekoa da aztarna edo ondare fisikoak izateak duen garrantzia, testuingurua kokatzen laguntzen baitute, ikerketarako informazio gehiago emanda. Horrela, ezinbesteko garrantzia hartzen dute eskura dauden dokumentu idatziek, ikus-entzunezko eta grafikoei, baita hemeroteka eta ikerketa lanek ere.

Guzti hori egin ahal izateko tresna egonkorak sortzea ezinbestekoa izango da. Memoria eta ondare material eta immateriala benetan berreskuratzen dira baldin eta berreskuratutakoak fisikoki eta sinbolikoki nonbait uzteko lekurik badago. Aldi berean, egitura egonkor

bat sortzeak soilik bermatzen du zeregin horrek eskatzen duen sakontasuna. Helburua ez da guztiz lortuko egindako lana itzultzeko eta komunitatearen esku jartzeko formularik aurreikusten ez bada.

Aurrez aipatu bezala, sortu berri dugun ZABALTZEN Dokumentazio Zentroaren proiektuak orain arte azaldutako gogoeta guzti horiei erantzun nahi die. Dokumentazio Zentroaren asmoa da LABeko komunitateko kideei gure ondarrera sarbidea ematea, modu erraz eta dokumentatuan, eta sindikatuentzat bere narratiba eraikitzeko tresna lagungarria izatea. Era berean, ikerketa eta azterketa erraztu nahi die hala nahi duten profesional eta ikertzaileei.

Ez gogoratzeak, ahazteak, errealitateari aurre egiteko ditugun baliabideen zati handi bati uko egitea dakar; gure oroimena galtzea, gure kabuz bestelako etorkizun bat irudikatzeak aukera galtzea da, eta ez gaude prest horri uko egiteko. ■

MEMORIA ETA
BORROKA HORMETATIK

MARTXOAK, 3
EL PUEBLO VASCO ORGANIZADO
SIGUE EN LUCHA

**JO TA KE IRABAZI ARTE
KONZENTRAZIOA
MANIFESTAPENA**

GASTEIZ
ORDUA: 7 TARDE • TOKIA: PLAZA 3 DE MARZO

DECIMO ANIVERSARIO
3 DE MARZO
ORGANIZACION PARA RESISTIR Y VENCER

MITIN

DIA, 2 - HORA, 12 DEL MEDIODIA
POLIDEPORTIVO DE ZARAMAGA

INTERVENDRAN

XABIER BAREÑO
JAVI ELORRIAGA
RAFA DIEZ
TXOMIN ZILUAGA
JOSELU CERECEDA

CONVOCA: LAB.
APOYA: HERRI BATASUNA



MARTXOAK 3
ORGANIZACION PARA RESISTIR Y VENCER

AYER

HOY

**ZAPALKUNTZAREN AURKA NAZIO ASKAPENAREN ALDE
KONZENTRAZIOA • MANIFESTAPENA**

GASTEIZ
ORDUA: 7,30 DE LA TARDE
TOKIA: C/ 3 DE MARZO
(Frente a la Iglesia de San Francisco)

AUDIO
ORDUA: 7,30 DE LA TARDE
TOKIA: HERRIKO PLAZA

Gasteiz, 1976-1999

3
Martxoak

Gaur, atzo bezala

**Lana eta
duintasuna!**

Manifestazioa
Martxoak 3 plazan • Arratsaldeko 7retan

LAB
langile abertzaleen batzordeak

Martxoak 3

Gaur, atzo bezala
por el empleo
contra la exclusión
Euskal Herria eraikitzen

Manifestazioa
7:30etan Martxoak 3 enparantzan

LAB
langile abertzaleen batzordeak

1976-1998
Gasteiz

MARTXOAK 3
¡¡NOSOTROS NO OLVIDAMOS!!

BIENVENIDO PEREDA

LAB

1976 • HERRIAK EZ DU BARKATUKO



MARTXOAK

3

MARZO



1996 • CASTIGA A LOS CULPABLES

Martxoak 3 - Gasteiz

1976

2003

Manifestazioa
eta omenaldia
Martxoak 3 plazan
Tetan

Atzo eta gaur

**Faxismoaren aurrean
herriaren duintasuna**



MARTXOAK-3

a
n
i
f
e
s
t
a
p
e
n
a

*Kapitalismoak dakarren
Katai eta zahalketa
izan dadila guretzat
ondar askatzea*



Lugar —	Plaza 3-Marzo	— Lekua
Dia —	Domingo 3-Marzo	— Eguna
Hora —	12,30 Mañana	— Ordua




martxoak3

ATZO ETA GAUR

**LANGILEOK
BORROKAN**

PREKARIETATEAREN AURKA

DENUNCIA Y COMBATE LA PRECARIEDAD



Labor beretik sortuko dira

1976

2024



JON MARTINEZ LARREA

Martxoak 3. Greba, sarraskia, memoria liburuaren egilea

«Martxoaren 3an lantegietako arazoetatik abiatuz sistema osoa jarri zen zalantzan»



JON MARTINEZ LARREA (1983) HISTORIALARIA ARGITARATU BERRI DUEN MARTXOAK 3. GREBA, SARRASKIA, MEMORIA (TXALAPARTA, 2026) LIBURUAZ MINTZO ZAIGU ELKARRIZKETA HONETAN.

1976ko Martxoaren 3ko Gasteizko Sarraskia bezalako gertakera baten 50. urteurrena arrazoi ona da liburu bat idazteko, baina hortik harago, zerk bultzatu zaitu lan hau egitera?

Alde batetik, nire tesia aurkeztu berri dut, eta bertan Arabako langile eta auzo mugimenduak aztertu ditut Trantsizio garaian, eta urte horietan 1976an gertatutakoa giltzarria da. Bestetik, Txalapartatik eskaintza etorri zitzaidan, 50. urtemuga dela eta liburu txiki bat egiteko asmoa baitzuten. Ideia hasieratik erakargarria iruditu zitzaidan, aukera ematen baitzidan mundu akademikotik harago eramateko ordura arte ikertutakoaren zati bat. Horrez gain, Martxoak 3ari buruz hainbat liburu egon arren, gehienak deskatalogatuta daude, eta uste dut begirada berri bat beharrezkoa zela.

Zein ikuspegitatik planteatu duzu lana eta zein dira aurkeztu dituzun tesi nagusiak?

Sarraskia erdigunean dago, 5 hildako eta ehunka zuritu utzi zituelako, baina ezin da ahaztu bi hilabetetako grebaren testuinguruan eman zela. Horrez gain, dena ez zen 1976an hasi, eta aurrekariak ezin ditugu ahaztu, Frankismoaren azken urteetan Gasteizko eraldaketa itzela izan baitzen, eta horrekin batera, langile klase berri bat sortzen joan baitzen.

Grebari dagokionez, hainbat faktore kontuan hartu behar dira, tartean, kontzientziazioa; lantegietako arazoetatik abiatuz, sistema osoa zalantzan jarri zen. Jende asko ahaldundu zen denbora gutxian eta langile mugimenduak zentralitatea eskuratu zuen. Zentzu horretan, Batzorde Ordezkatzaileetan oinarritutako eredu asanblearioa funtsezkoa izan zen greba zabaltzeko eta koordinatzeko. Demokraziaren inguruko eztabaida ere piztu zuen horrek. Hortaz, aldarrikapen ekonomikoekin hasi bazen ere, hasieratik osagai politikoak zituen grebak.

Emakumeen borroka ere nabarmendu behar da. Alde batetik, Areatioko grebalariek soldata arrakala azaleratu zuten, eta, bestetik, etxeakoandreek, beren martxekin, grebaren ondorioak zabaldu zituzten eta gizartearen sektore zabalak erakarri. Gobernuak, Gasteizko greba kontrolatu ezinean, errepresio gogorrena erabili zuen. Bortizkeria poliziala ordena publikoa mantentzeko erreminta bat zen. Hori horrela, Martxoaren 3an gertatutakoa adibide lazarriena da, baina ez zen salbuespen bat. Horrek trantsizio bakezalearen mitorekin talka egiten du.

Memoriaren adierazpen ezberdinak ere aintzat hartzea beharrezkoa da. Zentzu horretan, uste dut gaur egun Martxoaren 3ko memoria hegemonikoa dela Gasteizen, baina ez da beti horrela izan. Instituzioetatik isilune bat egon da hainbat urtez, eta memoria behetik eraikitzen joan da. Hori dela eta, memoriak gatazkatsua izaten jarraitzen du egun. Azkenik aipatuko nuke Martxoaren 3a Arabako identitatean txertatua geratu dela, gatazka politikotik urruntzen zen gizarte

apatikoaren mitoa behin betiko baztertua geratu baitzen orduan.

Irakurleek zer topatuko dute liburuan?

Asmoa da publiko zabal batera heletzea, tartean, gazteetara. Era berean, uste dut ekarpen historiografikoa bat ere badela, orain arte gutxi ikertutako esparruetan sakontzen dudalako. Hortaz, liburu baliagarria izan daiteke Martxoaren 3a bizi izan zutenentzat zein gaian interesatuta dagoen edonorentzat.

Liburuan gertatutakoa laburtzen saiatu naiz: aurrekariekin hasten da, ostean grebaren nondik norakoak kokatzen dira (eredu asanblearioa, langile kontzientziazioa, demokraziaren inguruko eztabaida, kaleko iskanbilak, prentsaren papeira, emakumeen borroka...), ondoren martxoaren 3ko eguna bera azaltzen da, sarraskia barne, eta egun haren ondorengoekin bukatzen dut: hileta, bertsio ofiziala, lanera itzulera, borrokaren balantzea eta memoria.

Bukatzeko aipatuko nuke liburua egiteko hainbat iturri erabili ditudala, besteak beste, gaiari buruzko bibliografia, orduko prentsa, artxibo ezberdinetan aurkitutako dokumentazioa, edo protagonistei egindako elkarrizketak. ■



Martxoak 3 **Greba, sarraskia,** **memoria**

Txalaparta, 2025

1976ko martxoaren 3ko sarraskira heltzeko, aurreko bi hilabetetako grebaren nondik norakoak ezagutu behar dira: aurrekariak, langileen kontzientziazioa edo Batzorde Ordezkatzaileetan oinarritutako eredu asanblearioa. Prozesu hori, askorentzat, denbora gutxian gauzatutako ahalduntze azkarra izan zen.

Gasteizko sarraskiak ez du bat egiten Trantsizioaren mitoarekin, eta biolentzia polizialaren zigorgabetasuna erakustez gain, alternatiba demokratizatzaileak ere bazeudela erakusten du.

Gertatutakoak Arabako hiriburuko bizitza politiko-soziala markatu zuen, eta hiriaren memoria kolektiboan iltzatua geratu da.



«Ez dut ezagutzen gertaera errepresibo bakar batean oinarrituta hainbeste abesti dituen beste kasurik»

LANDER GARCIA RODRIGO (1977) MEMORIAKTIBISTA, EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOAK 2024AN ARGITARATUTAKO *EUSKAL KANTU ERREBELDEA* LIBURUAREN EGILEA ETA LABEKO KIDEA. BERAREKIN SOLASALDIA IZAN DUGU MEMORIA ETA MUSIKAREN ARTEKO HARREMANAZ GOGOETATZEKO.

***Euskal kantu errebeldea* liburuan eta eman dituzun elkarrizketa eta hitzaldietan, musikak herri zapalduen borrokarako tresna gisa duen garrantzia nabarmentzen duzu. Baita memoria kolektiboa transmititzeko eta sortzeko ere.**

Askapen prozesuak denboran luzatzen dira. Hortaz, belaunaldi ezberdinek parte hartzen duten prozesu kolektibo horietan transmisioa ezinbestekoa da. Musika ez da baliabide bakarra helburu hori lortzeko baina oso eraginkorra da, kantagintzak komunitate baten narratiba politikoa eta barne kohesioa indartzen dituelako. Munduko borroka guztiek badute bere soinu-banda. Herri zapalduetan oso nabarmena da. Bertsio ofiziala errepresioaren bidez inposatzen denean ere, badago beste errealitatea gizarte-ratzen duen kronika musikatu bat. Estatuak kontatu nahi ez dutena herriak kantatzen duelako. Adibide bat jarriko dut: euskal gatazka armatuan hildako militanteei eskainitako 120 kanta dokumentatu ditugu. Herri adierazpen hori erabat kontrajarria da terroristatzat jotzen dituen bertsio ofizialarekin. Estatu sakonetik egiten diren kontakizun interesatuen eta gatazkaren negazionismoaren aurrean, hortxe dago gertatukoaren testigantza musikatu bat.





Zure lanean, besteak beste, martxoaren 3ko sarraskiaren kasua aztertu duzu abestiak sortzeko gai gisa. Zer ondorio atera dituzu?

Ez dut ezagutzen gertaera errepresibo bakar batean oinarrituta hainbeste abesti dituen beste kasurik. Gasteizko sarraskiak 44 kanta ditu, eta badakigu gehiago etorriko direla laster 50. urtemugaren harira. Martxoaren 3ko unibertso musikalak Euskal Herrian azken hamarkadetan eman diren prozesuei buruzko argibide ugari ematen ditu. Oro har, bi abesti mota bereiz ditzakegu. Batetik, sarraskia salatzeke kronikagileen rola bete zutenak haustura/erreforma urte horietan (1976 eta 1978 urteen artean sortutako 8 abesti daude). Bestetik, oroimen-kanta bezala izendatu daitezkeen multzoa dago; hau da, gertaeren ahanzturaren kontra eta ondorengo belaunaldientzat 1976ko greba prozesua borrokan jarraitzeko erreferentzia bihurtzeko egindakoak. Azken talde horretan, bi fase bereizi daitezke: memoria historikoaren lehen olatua (7 abesti 2001 eta 2008 artean) eta azken 15 urtetan egon den benetako booma, 2010etik gaur arte 26 abesti egin baitira. Horrez gain, azpimarratuko nuke estilo musikalen aniztasuna. Martxoaren 3ari erregistro ezberdinetatik abesten zaio: kantautoreak, punk-rocka, ska, heavy metal, hardcore, hip-hop... flamenko kopla bat ere badago! Kanten jatorria ere anitza da, 44tik 20 Gasteiztik sortu dira, eta gainontzeko 24en artean gehienak Euskal Herrian egin dira, baina badaude ere Lluís Llach-ek Kataluniatik egindakoa, Pepe Taranto Morón-ek Andaluziatik edo Adebán taldea Aragoitik, adibidez.

Etorkizunean ere martxoaren 3a kantuen gaia eta arrazoiak izaten jarraituko duela uste duzu?

Bai, zalantzarik gabe. Musikak borroka eta transmisio tresna izaten jarraituko du. Gaiak aldatu daitezke, gatazka eta erronka berriak sortzen direlako, baina euskal kantu errebeldearen haria ez da etengo. Euskal Herrian eta munduan korapilo politiko nagusienak bere horretan jarraitzen dute, hortaz, kanta berriak sortuko dira arazo zaharrei abesten. Herriak borrokan jarraitzen duen bitartean, kronika musikatu bat izango du, beti. ■



Entzun hemen
Martxoaren 3ari buruzko
kantu errebeldeen
zerrenda

<https://labur.eus/abestiakM3>

■ Bibliografia



Las mujeres de Gasteiz en la matanza del 3 de Marzo de 1976

2018 ■ 180 orrialde

Hizkuntza: Gaztelera

Editoriala: Intxorta 1937 Kultur Elkartea

Egileak: Zurñe Rodríguez Lara, Itziar Mujika Chao eta Nora Miralles Crespo

Martxoak 3 Elkartearen laguntzarekin argitaratutako liburua da *Las mujeres de Gasteiz en la matanza del 3 de Marzo de 1976*. Lan horretan 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertaera tragikoen testuinguruan hainbat emakumek bizi izandakoen testigantzak biltzen dira.

Egun horietan borrokan ziren emakume ezberdinek – greban zeudenak, erizainak, etxekoandreak, politikari nahiz aktibistak – beren esperientziak kontatzen dituzte: batzarretan parte-hartzea, laguntza lanetan antolatu zirela, zaurituak artatu zituztela... azken finean, langile-klasearen eskubideen alde borrokatu zirela. Emakume horiei guztiei ahotsa eman nahi izan zaie liburuan, haien memoria berreskuratzeko eta, hala, berdintasunean oinarritutako martxoaren 3aren inguruko memoria bat posible egiteko.

Gasteiz 3 de Marzo de 1976. Un recuerdo 25 años después

2001 ■ 100 orrialde

Hizkuntza: Gaztelera

Editoriala: Arabera argitaletxea

Egileak: Amparo Lasheras Gainzarain

Egileak azaldu digunez, liburu honen asmoa ez zen datu hotzen bilketa batean oinarritutako tesi bat egitea, harago doa bere helburua; 1976eko martxoaren 3ko gertaerek betirako aldatu zuten Gasteiz, eta datuez, tokiez, datez... gain, sakoneko eraldaketa hori bere bizipen propioetatik abiatuta azaldu nahi izan zuen idazleak. Bizipen pertsonalak, bai, baina egun haiek zuzenean bizi izan zituzten beste hainbat pertsonarekin partekatuak dira nolabait. Era berean, gertakari haiek langile mugimenduentzat zer suposatu zuten hausnartzen saiatzen da, 25 urte beranduago (2001ean).

Liburuak garai hartako dokumentazioari buruzko aipamen zuzen ugari ditu, baita edizio dataraino argitaratu gabeak ziren hainbat argazki ere. 2012an dokumentazio berria jasotzen duen zuzendutako bigarren edizio bat argitaratu zen.



Gaian sakontzeko materialak

Jarraian, argitalpen honetan jorratutako edukietan sakondu nahi duenak kontsulta ditzakeen materialak zerrendatu ditugu.

LIBURUAK

Argitalpen hau egiterako unean aipatzen ditugun liburuetak asko deskatalogatuta daude. Gehienak liburutegietan topa daitezke, eta horietako batzuk baita web-orrietan ere.

SAIAKERAK

ABÁSULO ALVAREZ, JOSE ANTONIO. (1987), Vitoria 3 de marzo. Metamorfosis de una ciudad. Gasteiz. Arabako Foru Aldundia.

AOIZ MONREAL, FLOREN. (2005), El jarrón roto: la transición en Navarra: una cuestión de Estado . Iruñea Txalaparta.

ARDANAZ OLAIZ, MIKELATS. (2014), Vitoria 3 de marzo de 1976 y la usurpación de la identidad: la narrativa de la insurgencia en la construcción del conocimiento de la Transición. Madrid, Aportes. Revista De Historia Contemporánea, 29 (86 pag).

CARNICERO HERREROS, CARLOS. (2007), La ciudad donde nunca pasa nada. Vitoria, 3 de marzo de 1976. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

GARCIA RODRIGO, LANDER. (Koordinatzailea) (2025), Euskal kantu errebelde (Euskal Memoria). Andoain, Aixe Liburuak.

GARCIA RODRIGO, LANDER. (2021), M3moria gurea da eta herriak abesten du (Artikuloa). Alea.eus web orria.

GONZÁLEZ INCHAURRAGA, Iñigo. (2008), Vitoria, 3 de marzo. Un conflicto transicional. Ediciones García.

RODRÍGUEZ LÓPEZ, EMMANUEL. (2015), Por qué fracasó la democracia en España La Transición y el régimen del '78. Madrid, Traficantes de Sueños.

VAL DEL OLMO, JOSE ARTURO. (2004), 3 de marzo, una lucha inacabada. Vitoria, Fundación Federico Engels.

GUINDAL, MARIANO ETA GIMÉNEZ, JUAN H. (1976). El libro negro de Vitoria. Madrid, Ediciones 99,

VV.AA. (2001), Todo el poder para la asamblea. Vitoria, 3 de marzo de 1976. Bilbo, Likiniano Elkar-tea.

VV.AA. (2021), M3 Memoria(k), espazioa(k) eta kolektiboa(k) : Zaramagako San Frantzisko Asisko Elizan memoriarako gune bat eraikitzeke oinarriak // M3 Memoria(s), espacio(s) y colectivo(s) : bases para la construcción de un espacio para la memoria en la Iglesia de San Francisco de Asís, Zaramaga (Vitoria-Gasteiz). Memoria gara. Gasteiz, Arabaera kultur elkarte.

SANTAMARINA OTAOLA, JOSU ETA IBARRONDO PORTILLA, JUAN (2019). Zaramaga. Memoria de un barrio. Gazteiz, Arabaera kultur elkarteak.

FIKZIOA

ESCASO HIGUERA, JOAQUIN. (2015) Todo que ganar. Tafalla, Txalaparta editoriala

IBARRONDO PORTILLA, JUAN (2019). Recuerdos de Marzo. Donostia, Txertoa Argiteretxea.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Gaiari buruzko ikus-entzunezko ekoizpen ugari dago Interneten. Gehienak bideoak ikusteko edo deskargatzeko atari ohikoenetan topa daitezke. Honako hauek nabarmendu daitezke:

Sucesos de Vitoria (Colectivo de cine de Madrid). <https://labur.eus/SucesosVitoria>

Charla ante miembros de la asociación 3 de Marzo. (Colectivo de cine de Madrid) <https://labur.eus/Charla3M>

Llach, la revolta permanent (Lluís Danés). <https://labur.eus/LaRevolta>

Massacre in Vitoria, nazioartean gaia azaltzeko ikus-entzunezkoa. <https://labur.eus/Massacrein-Vitoria>

Memoria 3 de marzo 1976. <https://labur.eus/Memoria3m>

Las Mujeres en el 3 de Marzo liburuauren aurkezpena (Hala Bedi). <https://labur.eus/Mujeres3M>

No M3 Olvides (Esther Martínez). <https://labur.eus/NoMeOlvides>

Volver a Vitoria (3 3 76) "...otra vez, la historia escondía a los culpables" (Miguel Montes eta Carles Cabrelles). <https://labur.eus/VolveraVitoria>

Horiez gain, EITBk egindako kazetari lanak ere kontsulta daitezke:

El tres de marzo los obreros fueron derrotados, pero no vencidos. (EITB). <https://labur.eus/DerrotadosNoVencidos>

Entrevista a Tomás Etxabe, (EITB). Gertakariaren 25. urteurrenean egindako elkarrizketa. <https://labur.eus/TomasEtxabeM3>

FIKZIOA

Vitoria, 3 de marzo (90') 2018ko Víctor Cabaco zinema zuzendariaren film dramatikoa, Gasteizko martxoaren 3ko sarraskian oinarrituta. <https://labur.eus/Vitoria3deMarzo>

Recreación radiofónica de la masacre del 3 de Marzo en Gasteiz (EITB). <https://labur.eus/Recreacion-Radiofonica3M>

LAB sindikatuaren eta Ipar Hegoa fundazioaren ale monografikoa, Gasteizko sarraskiaren 50. urteurrenean.

Argitalpen hau posible izan da Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren eta M3 Elkartearen laguntzari esker.

Oroimena, historia, absentziak eta loturak hari gorri baten bidez lotzeko ariketa, euskal langile klase gisa dugun historia berreskuratzeko.

A stylized carnation flower is centered on a white background. The flower's head is a vibrant red with a soft, textured, watercolor-like edge. The petals are layered, creating a full, rounded shape. The stem is a solid green, with a single, long, thin green leaf curving outwards from the lower part of the stem. The text '1976 2026' is printed in a bold, white, sans-serif font across the middle of the red flower head. The year '1976' is on the top line, and '2026' is on the bottom line, with the two lines slightly offset to the left.

**1976
2026**



1.976 - MARTXOA - 3 GAZTEIZ



LAB'
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA